



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2021ko martxoak 23**

**Vitoria-Gasteiz, 23 de marzo de 2021**

## Lehendakaritza

**LEHENDAKARIAK JOSE MANUEL BARROSO COVAX MEKANISMOAREN  
PRESIDENTEARI JAKINARAZI DIO EUSKO JAURLARITZAK TXERTAKETA  
GLOBAL ETA SOLIDARIO BATERAKO EKARPEN EKONOMIKOA EGIN  
NAHI DUELA**

- Txertoa herrialde pobretuen artean banatu behar da, bai eta, beren osasun-sistemen ikuspegitik, ahulenak direnen artean ere
- Solidaritatea edo gizatasuna nahikoak ez badira, printzipio "berekoiagoetara" jo daiteke: pandemia mundu osoan gainditzen da edo ez da gainditzen
- Euskadik dagoeneko erakutsi du bere konpromiso solidarioa, baliabideak eskainiz beste Autonomia Erkidego batzuei, bai eta beste herrialde batzuei ere, hala nola Peruri
- Eusko Jaurlaritza bezalako gobernuek, elkartasunerako, lankidetzarako eta laguntza humanitariorako bokazio egiaztatuarekin, zeregin garrantzitsua izan dezakete

Iñigo Urkullu Lehendakaria Jose Manuel Barrosori zuzendu zaio astelehen honetan, idatziz, Eusko Jaurlaritzak planetan txertaketa global eta solidarioa lortzeko inplikazio aktiboaren borondatea adieraziz eta hala jasota gera dadin. Barroso Europako Batzordeko presidente ohia da, eta, gaur egun, OMEk sustatutako GAVIren Patronatuko Presidentea. Aliantza horrek COVAX mekanismoa sustatu du, COVID-19aren pandemiaren aurkako txertaketa globala eta solidarioa lortzeko ekarpen publiko-pribatua egiten duena.

Lehendakariak, bere idazkian, Barrosori jakinarazi dio duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak lehenik, eta Eusko Legebiltzarrak, gero, babes publikoa eta irmoa eman diotela txertaketa globalari eta solidarioari. Iñigo Urkulluren iritziz, "helburu hori nazioartean partekatu beharko litzateke, alde askotatik eta elkartasun- eta gizatasun-printzipioekiko konpromisoagatik".

Eusko Jaurlaritzaren ustez, planetako biztanle guztiengana iritsi behar du txertoak. Txertoa herrialde pobretuen artean eta, beren osasun-sistemen ikuspegitik, ahulenak direnen artean banatu behar da bereziki.

Lehendakariak azpimarratu duenez, "elkartasun- eta gizatasun-printzipioak nahikoak ez balira txertaketa globalaren garrantziaz konbentzitzeko, printzipio 'berekoiagoetara' ere jo liteke. Pandemia mundu osoan gainditzen da edo ez da gainditzen. Segurtasun propioa, ekonomia propioa eta herrialde bakoitzaren osasun publikoa ez dira salbu egongo immunitatea kontinente eta herrialde guztietara iristen ez bada".

Joan den otsailaren 27an, Lehendakariak babestu egin zuen OMEko zuzendariak eta Europako Kontseiluko kideek otsailaren 25ean egindako adierazpena.

Pandemiaren urtebete honetan, Euskadik bere konpromiso solidarioa erakutsi du, beste Autonomia Erkidego batzuei baliabideak eskainiz, baita Peruri ere. Orain, pandemia global baten aurkako borrokan, osasunaren aldeko lankidetzaren aldean indartu nahi da, txertaketa global eta solidario baten bidez.

Eusko Jaurlaritzak bi konpromiso hartu ditu bere gain. Lehenik eta behin, COVAXen nazioarteko ahaleginei laguntzea; eta, bigarrenik, txertoak baliabide gutxien dituzten herrialdeetara iristen laguntzea, zuzenean eta horretarako prestatutako bideetatik.

Urkullu Lehendakariak bere idazkian amaitzeko, Barroso Presidenteari adierazi dio Eusko Jaurlaritzak borondate eta jarrera osoa duela COVAX ordezkatzen duen ahalegin globalari ekarpen ekonomikoa egiteko. "Uste sendoa dugu Estatupeko Gobernuak nazioarteko elkartasunaren, lankidetzaren, lankidetzaren eta laguntza humanitarioaren arloan izan dezaketen paper garrantzitsuaren inguruan".

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak eta estatuz kanpoko beste gobernu batzuek txertaketa global eta solidario bat lortzeko egiten duten ekarpena eraginkorra izan dadin bide argi bat jartzeko eskatu dio GAVIren Patronatuko Presidenteari.

## Lehendakaritza

### JAURLARITZAK LEGEGINTZALDI HONETARAKO EGITURA BERRIA OSATU DU

Jaurlaritzaren Kontseiluak **Osasun Sailaren** egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua onartu du gaurko bileran, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak dagoeneko osatu du bere egitura berria legegintzaldi honetarako.

Gaur onartutako dekretua Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretutik dator. Dekretu horren bidez, sail bakoitzaren eginkizunak eta jardun-arloak zehaztu ziren.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **GOBERNU KONTSEILUAK LEGEAK ETA DEKRETUAK EGITEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN LEGE PROIEKTUA ONARTU DU**

- **Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren etorkizuneko Legeak araudia egiteko prozedura arindu eta sinplifikatu egiten du**
- **Herritarren parte-hartzearen eta gardentasunaren behar eta eskakizun berrietara egokitzen da, eta genero ikuspegiaren azterketa indartzen du legeak egitean**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Lege Proiektua, Eusko Jaurlaritzak bere lege eta dekretuak egiteko bete behar dituen fase eta baldintza guztiak arautzeko bidea. 2003koa den aurreko Legea eguneratu nahi du, prozedura premia berrietara eta parte-hartzearen, eraginen ebaluazioaren eta gardentasunaren eskakizunetara egokitzeko.

Eusko Legebiltzarrera igorriko den etorkizuneko arauak berrikusi egiten du xedapen orokorrak egiteko prozedura, xedapenei zorrotasun eta kalitate berme handiagoa emateko. Horrela, efizienteagoa eta eraginkorragoa izango da eta Administrazioa modernizatzen lagunduko du, izapideak konzentratuz, karga burokratikoak murriztuz eta bitarteko elektronikoak bultzatuz.

Xedapen orokorrak egiteak garrantzi handia du, esku-hartze publikoak gizarte bizitzaren esparru guztietan eragindako arau-ugaritasunagatik eta gizarte egoera eta harreman guztietan eragina duten konplexutasunagatik. Botere publikoen parte-hartzearen, gobernantza onaren, gardentasunaren eta ebaluazioaren eskakizunak gero eta handiagoak dira, eta gero eta eragin handiagoa dute administrazioaren esparru guztietan. Egitasmo honekin arintasuna eta koherentzia indartzen dira arau prozeduretan.

Ekimen honek legeak eta dekretuak egiteko prozedura sinplifikatzea eta laburtzea du xede. Horretarako, zenbait fase ezartzen ditu, epe tasatuekin, araua egiteko beharrezkoak diren izapideetarako, betiere kalitateari eta berme juridikoei eutsiz eta, gainera, fase bakoitzean egin beharreko urratsak zehazten dira.

Lege honek, halaber, aurrerapauso kualitatiboa ekarriko du emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun politketan. Indartu egiten du genero ikuspegiaren azterketa eta neurri zuzentzaileak aurreikusten ditu Eusko Jaurlaritzak legeak eta dekretuak egiteko prozeduran.

Ekimenak arauak egiteko prozedura modernizatzen du, gaur egun indarrean dauden gobernantza onaren balioei erantzuten baitie eta plangintza, herritarren partaidetza eta digitalizazio premiekin bat egiten du. Ildo horretan, etorkizuneko lege honek arauen eta dekretuen izapidetze erabat digitala egiteko betebeharra jasotzen du, eta gardentasunez azaldu beharra bermatzen du. Azkenik, herritarrei kontsulta egiteko epe bat irekitzera behartzen du, Eusko Jaurlaritzaren webgune ofizialaren bidez. Xedapen arau-emaeleen

idazketa eta izapidetze elebidunari buruzko aurreikuspenak ere jasotzen ditu, bai eta Aldizkari Ofizialean argitaratzeari eta hark finkatutako testuak egiteari buruzkoak ere.

Etorkizuneko legeak zioen azalpen, 28 artikuluko -bi kapitulutan bilduta- xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu. Eusko Jaurlaritza lege hori aurrera ateratzen saiatu zen aurreko legealdian, baina helburu horrekin egindako lan parlamentarioak bertan behera geratu ziren, 2020ko otsailaren 11n Eusko Legebiltzarra desegin baitzen.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **GOBERNU KONTSEILUAK LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOENTZAKO 2021ERAKO ERRETIRO PARTZIALEKO PLANA ONARTU DU**

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio langile lan kontratudun finkoentzako Erretiro Partzialeko Plana onartzen duen akordioari, 2021eko otsailaren 12tik aurtengo abandua den 31ra arte.

Plan hori onartzeak ondorioak izango ditu gertaera eragilearen data 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatzen diren erretiro-eskaerei dagokienez, nahiz eta luza daitekeen, betiere erretiro partziala arautzen duen Gizarte Segurantzaren araudian funtsezko aldaketarik eginez gero.

Akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrak aurtengo otsailean egindako bileran negoziatu zen. Eusko Jaurlaritzak eta CC.OO. eta UGT sindikatuak sinatu zuten akordioa. Adostutakoaren aplikazio eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean ordezkatuta dauden langileetara mugatzen da eta, zehazki, honako eremu sektorial hauetara:

- Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan kontratuko langileak
- Hezkuntza Saileko lan-kontratuko irakasleak eta hezitzaileak
- Hezkuntzako lan-kontratuko langileak
- Hezkuntza Saileko erlijioeko lan-kontratuko langileak
- Segurtasun Saileko lan-kontratuko langileak
- Osakidetzako lan-kontratuko langileak

Akordioari esker, langile publikoen lan-bizitzaren amaiera nabarmen hobetuko da eta enplegu berria sortzen lagunduko du, belaunaldi-errelebo egokia erraztuko duena. Planak Administrazioeko ehunka langileren lan baldintzak hobetzea eta enplegu publikoa sustatzea ahalbidetzen du.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK 70.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU SASOIKAKO LANGILEENTZAKO OSTATUAK SORTZEN ETA HOBETZEN

- **Sasoikako Lanaren Arretarako Eusko Jaurlaritzak abian jarritako IV. Plan Integralaren parte dira laguntzak hauek**
- **2020an, zazpi proiektu lagundu ziren diruz guztira; beraz, gaur egun 128 higiezin daude sasoikako langileentzako ostatuaren erregistroan**

Nekazaritza sektorean lan egiten duten sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak sortzeko, egokitzeko edo hornitzeko 2021eko ekitaldian emango diren laguntzak iragarriaz Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak. Laguntzetarako 70.000 euro esleitu dira guztira, eta diru horretaz baliatu ahal izango dira bai pertsona fisikoak bai juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, baldin eta sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak badituzte.

Diruz lagundu daitezke sasoiko langileentzako ostatuaren sarea handitzera eta hobetzera eta ostatu baldintza duinak bermatzera zuzendutako proiektuak edo jarduketak, eta sasoikako langileak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden denboran lurraldean integratzera bideratutakoak. Horien barruan egon daitezke ostatuak eraikitze lanak edo, kasua bada, ostatuaren erosketa, eta ostatu horiek gaitzeko, eraberritzeko, handitzeko, egokitzeko, hobetzeko eta hornitzeko lanak, ostatu erregistratua izateko eskatzen den araudia bete ahal izateko.

#### **IV. Plan Integrala**

Laguntza hauek **Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integralaren** parte dira, izan ere, planak sasoikako lanaren inguruan sortzen diren **premiei erantzuteko jardunak modu koherente eta koordinatuan planifikatzeko modua arautzen du**. Azken helburua da behar adina ostatu leku izatea, arauz ezarritako gutxieneko bizigarritasun eta duintasun baldintzekin.

Horretarako, baldintza horiek betetzen ez dituzten ostatuaren hobekuntza egokiak egitea eskatzen da, gai gisa baimenduta (erregistratuta) dauden ostatuaren kopurua pixkanaka egun dagoen ostatuaren kopurura hurbil dadin.

Asmoa da ostatu gisa erabiltzen diren higiezinak, horretarako erabili arren araudia betetzeko behar dituzten hobekuntzak egin ezin bazaizkie, gehiago ez erabiltzea eta horiek ordeztzeko beste higiezin batzuk gaitzea, iragartzen diren laguntzak erabiliz. Hala, agindu honen arabera higiezinak eraikitze ez ezik higiezinak erosteko ere baliatu ahal izango dira dirulaguntzak, sasoikako langileei ostatu emateko lehendik zeuden higiezinak berrerabili ahal izateko.



Eskabideak aztertzeko eta laguntzen zenbateko zehatza erabakitzeko, irizpide objektiboak hartuko dira kontuan, hala nola kokapena, sustatzailea indarrean dagoen Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralean ezarritako nekazaritzako sasoikako lanaren programari atxikita egotea, ostatu lekuen kopurua edo ostatu leku bakoitzaren batez besteko kostua.

### **Eskaera egiteko epea**

Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hasiko da laguntzen deialdian sartzeko eskaerak aurkezteko epea, eta bukatu, berriz, fondoak guztiz agortzen direnean bukatuko da edo, bestela, ekitaldi honetako azaroaren 15ean. Fondoak agortzen badira, Landa eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak emango du horren berri, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta.

Eskabide eredua agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da eskuragarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/servicios/1013808>.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **EUSKO JAURLARITZAK 8,9 MILIOI EUROKO GASTUA BAIMENDU DU BILBOKO TXURDINAGA AUZOAN 72 ZUZKIDURA-BIZITOKI ERAIKITZEKO, LEHENTASUNEZ GAZTEEI ZUZENDUTA**

Gobernu Kontseiluak 8,89 milioi euroko gastua baimendu du 2021etik 2024ra arteko aldirako, Bilboko Txurdinaga auzoan 72 zuzkidura-bizitoki eraikitzeke. Horren helburua da Bizkaiko hiriburuko etxebizitza-beharrei erantzutea.

Zuzkidura-bizitokiak (AZB) batez ere gazteentzat izango dira, emantzipazioa bultzatzeko xedearekin. Bilbon erroldatuta eta Etxebiden aldi baterako alokairuko erregimenean alta emanda dauden pertsonen eskura jarriko dira AZBak, gehienez ere bost urtez. Maizterrek hileko kanon bat ordainduko dute, haien diru-sarrera haztatuen % 30 gainditu gabe.

### **Soraluze-Placencia de las Armaseko Udalarekin hitzarmena**

Gobernu Kontseiluak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta Soraluze-Placencia de las Armaseko Udalaren arteko hitzarmena onartu du, udalerriak Txurrukako 2.692 m<sup>2</sup>-ko lurzati bat doan lagatzeko. Bertan dagoen eraikina Eusko Jaurlaritzak eraitsiko du urbanizazio-lanak egiteko eta alokairuko babes sozialeko hogeita hamar etxebizitza inguru eraikitzeke. Sailak horietako lau utziko dizkio Gipuzkoako udalerriko udalari, eta udal erakundeak erabiliko du beheko solairua.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK BILBOKO RAMPAS DE URIBITARTE KALEKO 3. ZENBAKIAN DAGOEN ETXEAREN ERAIKINA MONUMENTU KATEGORIAREKIN BABES BEREZIKO KULTUR ONDASUN DEKLARATZEKO DEKRETUA ONARTU DU**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Bilboko Uribitarte Erranplak kaleko 3. zenbakian dagoen etxearen eraikina monumentu kategoriarekin Babes Berezikoko Kultur Ondasun deklaratzeko dekretua. Enrique Epalza arkitektoak egindako eraikina da.

Gaur onartutako dekretuak kultura ondasun honen mugaketa ere zehazten du. Uribitarte Erranplak kaleko 3. zenbakian kokatutako Etxearen ingurumen-balioak eta balio bisualak babestu behar direla eta, mugaketak, alde batetik, eraikin nagusia hartzen du, erantsitako bolumenarekin batera; eta, bestetik, haren ingurua, hau da, Mazarredo zumarkaletik eraikinera sartzeko eskailera, eta fatxada nagusiaren aurrean dagoen lorategi-eremua.

Eusko Jaurlaritzak Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan inskribatuko du eraikina, eta babes bereziko kultura-ondasun izendapenaren onarpena jakinaraziko die Bilboko Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

#### **Arkitektura eklektikoa**

Eraikin babestua Enrique Epalza arkitektoak egin zuen, eta XX. mende hasierako estilo eklektikoa du, eragin modernistekin. Proiektua 1904ko urtarrilean aurkeztu zitzaion Bilboko Udalari, eta urtebete geroago, 1905eko otsailean, eraikin nagusirako kotxetegi-eraikinaren proiektua ere aurkeztu zen. 1906an, eraikinak Bilboko Udalak deitutako Fatxada Artistikoen Lehiaketa irabazi zuen.

Eraikinak beheko solairua, sotoa eta lau solairu altu ditu. Kanpoko diseinurako, Epalzak kalitatezko materialak erabili zituen, hala nola polikromia fatxadan, eta, estalkian, koloretako teilak, bere obraren estilo bereizgarri bat. Diseinuak eta barruko dekorazioak autore ezagunak ditu: eskaiolak eta zura, Doroteo R. Mora eskultorearenak, eta beirateak, Declaux enpresarenak. Dekorazio honetan egurrezko ebanisteria fina, eskailera-kaxetako beirateak eta gelaren batean sabaietako eskaiolak, errementeria eta marmolgintza nabarmentzen dira.

Gaur egun, eraikinak Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren egoitza hartzen du.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN ETA EUSKALTZAINDIAREKIN HITZARMENAK BERRITUKO DITU**

Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko Esparru Hitzarmena berritzea onetsi du. Gaur onartutakoa laugarren Esparru Hitzarmena da, lehenengoa 2007-2010 aldirako izan zen. Oraingoa 2021-2025 aldirako egongo da indarrean. Hitzarmen honek euskarari buruzko hizkuntza-politikaren arloko mugaz gaindiko lankidetzaz ezartzen du.

Gobernu Programak ere azpimarratzen du euskararen hiru lurraldeen erakundearen arteko lankidetzaz antolatzea eta indartzea eta euskararen nazioarteko aitormena bultzatzea eta helburu horrekin bat dator orain berrituko den hitzarmena.

#### **Euskaltzaindia**

Bestalde, gaur egin den Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko 2021-2024 epealdirako esparru hitzarmena ere onartu du. Bost erakundeek holako hitzarmena sinatzen duten bosgarren aldia da, lehenengoa 2000-2004 epealdikoa izan zen. Hitzarmenaren helburua erakunde sinatzaileen lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzea da. Euskara ikertzeko eta zabaltzeko jardueren ikuspuntu integratu baten barruan, epe ertain eta luzera erronka berriak planteatzea ahalbideratuko du hitzarmenak.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

### **1.450.000 EUROKO LAGUNTZAK ONARTU DIRA, EUSKADIKO HELMUGA TURISTIKOEN KALITATEA HOBETZEKO PROIEKTUETARAKO**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten turismo-proiektuak garatzeko laguntzen deialdia egin du, turismo-fluxu berriak dinamizatuz, banatuz eta sortuz. Laguntzen zenbatekoa 1.450.000 eurokoa da, eta helmugen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzeko ekimenetara bideratuta dago. Azken alderdi hori baloratzeko, Euskadiko Turismoaren Kode etikoarekin bat datozen eskaerak hartuko dira kontuan.

Deialdi honetan, agindu honetako baldintzak kobidaren pandemiaren inguruabarretara egokitu dira<sup>19</sup>. Gainera, bateragarriak izango dira Sailaren COVID-19 aparteko laguntzekin eta beste erakunde edo organismo batzuek helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

Laguntzak hiriburuetako turismoa sustatzeaz arduratzen diren erakunde publikoei zuzentzen zaizkie (udalak, tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresa-erakunde publikoak eta titulartasun publikoko merkataritza-sozietateak), bai eta eskualdeko turismo-lankidetzako erakundeetan sartuta ez dauden udalerriei ere.

Gainera, irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuek ere eskatu ahal izango dituzte (kuadrilla eta mankomunitateak, garapen-agentziak, landa-garapeneko elkarteak, partzuergoak, erakunde publiko eta pribatuek eratutako merkataritza-sozietateak, beste erakunde eta elkarte batzuk), baldin eta eskualdean edo eskualdez gaindi jarduten badute, turismo-lankidetzako erakunde gisa edo turismo-produktuen erakunde kudeatzaile gisa.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak elektronikoki izapidetuko dira euskadi.eus egoitza elektronikoa.

## Presidencia

**EL LEHENDAKARI TRANSMITE A JOSÉ MANUEL BARROSO, PRESIDENTE DEL MECANISMO COVAX, LA VOLUNTAD DEL GOBIERNO VASCO DE CONTRIBUCIÓN ECONÓMICA A UNA VACUNACIÓN GLOBAL Y SOLIDARIA**

- **La vacuna ha de ser distribuida entre los países empobrecidos y entre los que, desde el punto de vista de sus sistemas de salud, son más vulnerables**
- **Si la solidaridad o la humanidad no son suficientes, puede apelarse a principios más “egoístas”: la pandemia se supera en todo el mundo o no se supera**
- **Euskadi ha demostrado ya su compromiso solidario ofreciendo recursos a otras comunidades autónomas, e incluso a otros países como Perú**
- **Gobiernos como el vasco, con vocación contrastada de solidaridad, cooperación y ayuda humanitaria, pueden jugar un papel relevante**

El Lehendakari Iñigo Urkullu se ha dirigido este lunes por escrito a José Manuel Barroso para dejar constancia de la voluntad del Gobierno Vasco de implicación activa en el objetivo de lograr una vacunación global y solidaria en todo el planeta. Barroso, exPresidente de la Comisión Europea, es en la actualidad Presidente del Patronato del GAVI, la alianza internacional impulsada por la OMS. Esta alianza ha promovido el mecanismo COVAX, de contribución público-privada para lograr una vacunación global y solidaria frente a la pandemia de la COVID-19.

El Lehendakari ha informado en su escrito a Barroso que recientemente, el Gobierno Vasco, primero, y el Parlamento Vasco, después, han expresado su apoyo público y decidido a una vacunación global y solidaria. En opinión de Iñigo Urkullu, “este objetivo debería ser compartido internacionalmente de forma multilateral y por compromiso con los principios de solidaridad y humanidad”.

El Gobierno Vasco considera que la vacunación tiene que llegar a toda la población del planeta. La vacuna ha de ser distribuida, especialmente, entre los países empobrecidos y entre aquellos que, desde el punto de vista de sus sistemas de salud, son más vulnerables.

El Lehendakari subraya que “si los principios de solidaridad y humanidad no fueran suficientes para convencernos de la importancia de una vacunación global, podría apelarse también a principios más ‘egoístas’. La pandemia o se supera en todo el mundo o no se supera. La seguridad propia, la economía

propia y la salud pública propia de cada país no estarán a salvo si la inmunidad no alcanza a todos los continentes y países”.

Ya el pasado 27 de febrero el Lehendakari su sumó y apoyó el llamamiento hecho en este sentido por el Director de la OMS y por los miembros del Consejo Europeo en su declaración de 25 de febrero.

A lo largo de este año de pandemia, Euskadi ha demostrado su compromiso solidario ofreciendo recursos a otras Comunidades Autónomas, e incluso a otros países como Perú. Ahora, en la lucha contra una pandemia global, se trata también de reforzar la cooperación multilateral por la salud, mediante una vacunación global y solidaria.

El Gobierno Vasco asume dos compromisos. En primer lugar, apoyar los esfuerzos internacionales de COVAX; y en segundo lugar, contribuir, de modo directo y por los cauces que se habiliten para ello, a que las vacunas lleguen a los países con menos recursos.

El Lehendakari Urkullu termina su escrito expresando al Presidente Barroso la voluntad y plena predisposición del Gobierno Vasco de hacer una contribución económica al esfuerzo global que representa COVAX. “Tenemos una firme convicción sobre el relevante papel que pueden jugar Gobiernos sub-estatales con una vocación contrastada en materia de solidaridad internacional, cooperación descentralizada y ayuda humanitaria”.

En este sentido, solicita al Presidente del Patronato del GAVI que se habilite un cauce claro para que el Gobierno Vasco y otros gobiernos no estatales puedan hacer efectiva su contribución a este objetivo de una vacunación global y solidaria.

## Presidencia

### EL GOBIERNO COMPLETA SU NUEVA ESTRUCTURA PARA ESTA LEGISLATURA

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy el Decreto que establece la estructura orgánica y funcional del **Departamento de Salud**. Con la aprobación de este decreto el Gobierno Vasco completa ya su nueva estructura para la presente Legislatura.

El nuevo decreto deriva del [Decreto 18/2020 de 6 de septiembre](#), del Lehendakari, por el que se determinan las funciones y áreas de actuación de cada uno de los departamentos.



## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL CONSEJO DEL GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LEY QUE REGULA LOS REQUISITOS PARA ELABORAR LEYES Y DECRETOS

- **La futura ley de Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General agiliza y simplifica el procedimiento para elaborar normativa**
- **Se adapta a las nuevas necesidades y exigencias de participación ciudadana y transparencia y refuerza el análisis de perspectiva de género en la elaboración de leyes**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Proyecto de Ley del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, una norma dirigida a regular cada una de las fases y requisitos que debe cumplir el Gobierno Vasco para elaborar sus leyes y decretos. Pretende actualizar la Ley anterior que data de 2003 de forma que se adecue a las nuevas necesidades de procedimiento y exigencias de participación, evaluación de impactos y transparencia.

La futura norma que será remitida al Parlamento Vasco revisa el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general para dotar de mayor rigor y garantía de calidad a las disposiciones. De este modo, será más eficiente y eficaz y favorecerá la modernización de la Administración, concentrando los trámites, reduciendo cargas burocráticas e impulsando los medios electrónicos.

La elaboración de disposiciones de carácter general tiene una gran importancia debido a la profusión normativa provocada por la intervención pública en todos los ámbitos de la vida social y por la complejidad de las normas que inciden sobre todo tipo de situaciones y relaciones sociales. Las exigencias de participación, buena gobernanza, transparencia, y evaluación de los poderes públicos son cada vez mayores y afectan cada vez más a todos los ámbitos de la administración. Con la futura norma, se refuerza la agilidad y la coherencia en los procedimientos normativos.

El Proyecto de Ley prevé simplificar y acortar el procedimiento de elaboración de leyes y decretos. A tal fin establece varias fases con plazos tasados para los trámites necesarios para elaborar la norma manteniendo la calidad y las garantías jurídicas y, además, detalla los pasos obligatorios en cada una de ellas.

La futura ley supondrá asimismo un avance cualitativo en las políticas de igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres. Refuerza el análisis de la perspectiva de género y la aplicación de las medidas correctoras en el procedimiento de elaboración de leyes y decretos por parte del Gobierno Vasco.

La iniciativa moderniza el procedimiento de elaboración de normas en tanto que responde a los valores de la buena gobernanza vigentes en la actualidad, y se alinea a

las necesidades actuales de planificación, participación ciudadana y digitalización. En este sentido, la futura ley incorpora la obligación de realizar una tramitación totalmente digital de las normas y decretos, exponerla con transparencia durante todas las fases de gestación y, por último, obliga a abrir un plazo de consulta previa a la ciudadanía a través de la web oficial del Gobierno Vasco. Incorpora también previsiones sobre la redacción y tramitación bilingüe de las disposiciones normativas y sobre la publicación en el Boletín Oficial y la elaboración de textos consolidados por el mismo.

La futura ley consta de una exposición de motivos, 28 artículos, agrupados en dos capítulos, una disposición adicional, una disposición transitoria, una disposición derogatoria y tres disposiciones finales. El Gobierno Vasco intentó sacar adelante esta ley la pasada legislatura, pero los trabajos parlamentarios llevados a cabo a tal fin decayeron al disolverse el Parlamento Vasco el 11 de febrero de 2020.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### **EL GOBIERNO APRUEBA EL PLAN DE JUBILACIÓN PARCIAL PARA EL PERSONAL LABORAL FIJO PARA EL AÑO 2021**

El Consejo de Gobierno ha aprobado el acuerdo por el que da luz verde al Plan de Jubilación Parcial para el personal laboral fijo desde el 12 de febrero de 2021 hasta el 31 de diciembre de este año.

La aprobación del citado plan extenderá sus efectos respecto de las solicitudes de jubilación cuya fecha del hecho causante se produzca antes del 1 de enero de 2022, sin perjuicio de su posible prórroga, que estará condicionada a cualquier modificación sustancial de la normativa de Seguridad Social reguladora de la jubilación parcial.

El acuerdo fue negociado en el marco de la reunión de la Mesa General de Negociación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi celebrada en febrero de este año, que fue suscrito entre el Gobierno Vasco y los sindicatos CC.OO. y UGT.

El ámbito de aplicación del acuerdo se circunscribe al personal representado en la Mesa General de Negociación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en concreto a los siguientes ámbitos sectoriales:

- El personal laboral de la Administración General y de sus organismos autónomos
- El personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación
- El personal laboral de Educación
- El personal laboral de Religión del Departamento de Educación
- Personal laboral del Departamento de Seguridad
- Personal laboral de Osakidetza

El acuerdo permitirá una mejora sustantiva en el final de la vida laboral de las y los trabajadores públicos y favorecerá la creación de nuevo empleo que, a su vez, facilitará un adecuado relevo generacional. El plan hace posible la mejora de las condiciones laborales de centenares de trabajadores de la Administración así como el fomento del empleo público.

## Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

### EL GOBIERNO VASCO APOYA CON 70.000 EUROS LA CREACIÓN Y MEJORA DE ALOJAMIENTOS PARA PERSONAL TEMPORERO

- Estas ayudas se enmarcan en el IV Plan Integral de Atención al Trabajo Temporero
- En 2020 se subvencionaron un total de siete 7 proyectos, con lo que en la actualidad el registro de alojamientos para personal temporero incluye 128 inmuebles

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por la que se convocan, para el presente ejercicio 2021, las ayudas a la creación, adaptación o equipamiento de inmuebles destinados a ser alojamiento para el personal temporero que preste servicios en el sector agrario. Dotadas con un montante global de 70.000 euros, benefician tanto personas físicas como jurídicas, públicas o privadas, que sean propietarias de inmuebles destinados al citado fin.

Son subvencionables los proyectos o actuaciones dirigidas a incrementar y mejorar la red de alojamientos para personal temporero y a garantizar unas condiciones de alojamiento digno y orientado a la integración del mismo durante su estancia en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca. Ello puede incluir la construcción o, en su caso, la adquisición, y la habilitación, reforma, ampliación, acondicionamiento, mejora y equipamiento de dichos alojamientos, con la finalidad de poder cumplir con la normativa exigida para ser alojamiento registrado.

#### **IV Plan Integral**

Estas ayudas se enmarcan en el **IV Plan Integral de Atención al Trabajo Temporero, que regula la planificación de forma coherente y coordinada de actuaciones que den respuesta a las necesidades** suscitadas en torno al temporerismo. El objetivo final es disponer de suficiente número de plazas de alojamiento que reúnan las condiciones de habitabilidad y dignidad mínimas establecidas normativamente.

Para ello, se exigen las mejoras oportunas en los alojamientos existentes que no cumplan dichos requisitos, de manera que el número de autorizados como aptos (registrados) se acerque paulatinamente al número de alojamientos existentes.

Se pretende que los inmuebles utilizados como alojamientos, pero que no tengan posibilidad de mejora para llegar a cumplir la normativa, dejen de utilizarse y sean sustituidos por la habilitación de otros, siendo estos los destinatarios de las ayudas. Así, **la presente orden prevé como acción a subvencionar no sólo la construcción sino también la adquisición de inmuebles**, a fin de posibilitar

la reutilización de inmuebles preexistentes para el uso de alojamiento para personal temporero.

Para el análisis de las solicitudes y determinación de la cuantía concreta de las ayudas se tendrán en cuenta criterios objetivos, tales como la ubicación, que la persona promotora esté acogida al programa de temporerismo agrario establecido en el Plan Integral de Atención al Trabajo Temporero vigente, el número de plazas del alojamiento, o el coste medio de cada plaza.

### **Plazo de solicitud**

El plazo de presentación de las solicitudes se inicia el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará con el agotamiento total de los fondos, dando publicidad a esta circunstancia mediante Resolución de la Directora de Desarrollo Rural y Litoral, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, o hasta el 15 de noviembre del presente ejercicio.

El modelo de solicitud que se encontrará disponible, desde el día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV, en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi: <https://www.euskadi.eus/servicios/1013808>.

## Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

**EL GOBIERNO VASCO AUTORIZA EL GASTO DE 8,9 MILLONES DE EUROS PARA CONSTRUIR 72 ALOJAMIENTOS DOTACIONALES PREFERENTEMENTE PARA JÓVENES EN EL BARRIO DE TXURDINAGA (BILBAO)**

El Consejo de Gobierno ha autorizado el gasto de 8,89 millones de euros entre 2021 y 2024 para la construcción de 72 alojamientos dotacionales en el barrio de Txurdinaga en Bilbao, con el fin de atender a las necesidades de vivienda de la capital vizcaína.

Los alojamientos dotacionales (ADA) estarán destinados preferentemente a personas jóvenes, con el fin de impulsar su emancipación. Las ADA se pondrán a disposición de personas empadronadas en Bilbao que estén dadas de alta en Etxebide, en régimen de alquiler temporal, por un máximo de cinco años. Las personas inquilinas pagarán un canon mensual que no superará el 30% de sus ingresos ponderados.

### **Convenio con el Ayuntamiento de Soraluze-Placencia de las Armas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado el convenio del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes con el Ayuntamiento de Soraluze-Placencia de las Armas para la cesión gratuita por parte del municipio de una parcela de 2.692 m<sup>2</sup> en Txurruka, en la que el Gobierno Vasco derribará el edificio existente para realizar labores de urbanización y construir una treintena de viviendas de protección social de alquiler. El Departamento cederá cuatro de ellas para realojos al Ayuntamiento de la localidad guipuzcoana y la planta baja será utilizada por la institución local para dotaciones sociales municipales.

## Cultura y Política Lingüística

**EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL DECRETO QUE DECLARA COMO BIEN CULTURAL DE PROTECCIÓN ESPECIAL, CON LA CATEGORÍA DE MONUMENTO, EL EDIFICIO DE LA CASA UBICADA EN LA CALLE RAMPAS DE URIBITARTE Nº3 EN BILBAO**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el decreto por el que se declara como Bien Cultural de Protección Especial, con la categoría de Monumento, el edificio de la Casa ubicada en la calle Rampas de Uribitarte nº3 de Bilbao obra del arquitecto Enrique Epalza.

El decreto aprobado hoy también define la delimitación de este bien cultural. Debido a la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales de la Casa ubicada en Rampas de Uribitarte 3, la delimitación abarca, por un lado, el edificio principal junto con el volumen anexo y, por otro, su entorno, es decir, la escalera de acceso al edificio desde la Alameda Mazarredo y la zona ajardinada situada frente a la fachada principal.

El Gobierno Vasco inscribirá el edificio en el registro de la Comunidad Autónoma de Euskadi del Patrimonio Cultural Vasco y comunicará la aprobación de su declaración como Bien Cultural de Protección Especial al Ayuntamiento de Bilbao, a la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco.

### **Arquitectura ecléctica**

El edificio protegido es obra del arquitecto Enrique Epalza y responde a un estilo ecléctico con influencias modernistas de comienzos del siglo XX. El proyecto fue presentado al Ayuntamiento de Bilbao en enero de 1904 y un año más tarde, en febrero de 1905 también se presentó un proyecto de edificio de cocheras para el inmueble principal. En 1906, el edificio ganó el Concurso de Fachadas Artísticas convocado por el Ayuntamiento de Bilbao.

El edificio cuenta con una planta baja, un sótano y cuatro pisos altos. Para el diseño exterior Epalza utilizó materiales de calidad como la policromía en la fachada, y, en la cubierta, las tejas de colores, un estilo característico de su obra. El diseño y la decoración interior cuenta con autorías reconocidas: las escayolas y la madera, del escultor Doroteo R. Mora y, las vidrieras, de la empresa Declaux. En esta decoración destaca la ebanistería fina de madera, vidrieras en cajas de escaleras y en alguna estancia, escayolas de los techos, herrería y marmolería. Hoy en día el edificio alberga la sede del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia.

## Cultura y Política Lingüística

### **EL GOBIERNO VASCO RENOVARÁ LOS CONVENIOS CON EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA Y EUSKALTZAINDIA**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la renovación del convenio marco entre el Gobierno Vasco y Euskararen Erakunde Publikoa de Iparralde. Se trata de la cuarta vez que se firma este convenio, la primera vez fue para el periodo 2007-2010. El presente acuerdo, que estará en vigor en el periodo 2021-2025, establece la colaboración transfronteriza en materia de política lingüística sobre el euskera.

El Programa de Gobierno remarca la organización y el fortalecimiento de la colaboración interinstitucional entre los tres territorios del euskera y el impulso de su reconocimiento internacional y el convenio que ahora se renueva se enmarca dentro de ese objetivo.

#### **Euskaltzaindia**

Por otro lado, el Consejo de Gobierno también ha aprobado, hoy, el convenio marco entre el Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Euskaltzaindia para el periodo 2021-2024. Se trata de la quinta vez que se firma este acuerdo entre las cinco instituciones, la primera de ellas fue en el periodo 2000-2004. El objetivo es establecer las bases generales para la colaboración de las entidades firmantes. El convenio permitirá plantear nuevos retos a medio y largo plazo dentro de un enfoque integrado de las actividades de investigación y difusión del euskera.



## Turismo, Comercio y Consumo

### **APROBADAS AYUDAS POR VALOR DE 1.450.000 DE EUROS CON DESTINO A PROYECTOS QUE MEJOREN LA CALIDAD DE LOS DESTINOS TURÍSTICOS DE EUSKADI**

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo ha convocado ayudas para el desarrollo de proyectos turísticos que mejoren el atractivo y la calidad de los destinos de Euskadi, y que dinamicen, distribuyan y generen nuevos flujos turísticos.

El importe de las ayudas es de 1.450.000 euros y se orienta a iniciativas que mejoren la competitividad y sostenibilidad de los destinos. Para valorar este último aspecto se tendrá en cuenta a las solicitudes que asuman los compromisos que marca el Código Ético de Turismo de Euskadi.

Los requisitos de esta orden se han adaptado en esta convocatoria a las circunstancias derivadas de la pandemia. Además, serán compatibles con las ayudas extraordinarias COVID-19 del Departamento y con otras ayudas otorgadas para la misma finalidad por otras entidades y organismos.

Las ayudas se dirigen a entidades públicas (ayuntamientos, organismos autónomos locales, entidades públicas empresariales locales y sociedades mercantiles de titularidad pública) responsables de la promoción turística de las capitales, así como de los municipios no integrados en entes de cooperación turística comarcales.

Además, podrán solicitarlas también las entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro (cuadrillas y mancomunidades, agencias de desarrollo, asociaciones de desarrollo rural, consorcios, sociedades mercantiles constituidas por entidades públicas y privadas, otras entidades y asociaciones) que actúan en un ámbito comarcal o supracomarcal como entes de cooperación turística o como entes gestores de productos turísticos.

El Plazo de presentación de las solicitudes será de un mes desde el día siguiente a la publicación en el BOPV. Las solicitudes se tramitarán de forma electrónica en la sede electrónica euskadi.eus.